



<b>Testuingurua</b>	<b>1</b>
<b>Bertaratze profila</b>	<b>2</b>
<b>Ikusgarritasuna</b>	<b>7</b>
<b>Anplifikazioa</b>	<b>13</b>
<b>Sozializazioa eta ikaskuntza</b>	<b>15</b>
<b>Komunitatea</b>	<b>19</b>

1. grafikoa. Afiliazioa	2
2. grafikoa. Generoa	3
3. grafikoa. Jarduera profila	4
4. grafikoa. Saioteko parte-hartzea	5
5. grafikoa. EBE 22ren aurreko ezagutza	7
6. grafikoa. EBE 22ren ondorengo ezagutza	8
7. grafikoa. Komunikazio kanalak	9
8. grafikoa. Ekimena komunitatearen proiektuak ezagutzeko egokia den	9
9. grafikoa. Ekimena proiektu propioak partekatzeko egokia den	10
10. grafikoa. Saioen interesa	11
11. grafikoa. Campus 2030 tailerraren egokitasuna	12
12. grafikoa. kontaktu berriak sortzeko egokitasuna	13
13. grafikoa. Ekimen berriak kontuan hartzeko egokitasuna	14
14. grafikoa. Ekimenaren eleaniztasuna	15
15. grafikoa. Lehen hizkuntzaren ordezkariak	16
16. grafikoa. Kulturartekotasuna	17
17. grafikoa. Sozializazio horizontala	17
18. grafikoa. Euroeskualdeko errealitatearen ezagutza	18
19. grafikoa. Kide izatearen sentipena	19
20. grafikoa. Ekimenaren antolaketa	20
21. grafikoa. Hitz-hodeia	21

## Testuingurua

Euskampus Bordeaux Eguna 22 (EBE 22) 2014az geroztik egiten den urtean behingo ekimen bat da. Urte horretan, Euskampus Bordeaux Mugaz Gaindiko Nazioarteko Bikaintasun Campusa martxan jarri duten erakundeen arteko lankidetzak hasi zen; hau da, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU), Bordeleko Unibertsitatearen (UB), Tecnaliaren eta Donostia Physics Centerren (DIPC) artekoa.

Ekimen hori unibertsitateko komunitateko estamentu guztiei eta Mugaz Gaindiko Campusean garatzen diren proiektuetan parte hartzen duten erakunde elkartu guztiei zuzenduta dago. Urtean behingo topaketa hori diseinatzerakoan, 4 helburu nagusi hartu ziren kontuan: a) aliantzari eta bertan sartzen diren ekimenei ikusgarritasuna ematea, b) aliantza horren esparruan egin daitezkeen jarduerak zabaltzea, c) sozializazioa eta ikaskuntza indartzea, eta d) Euskampus Bordeaux komunitateko kide izatearen sentipena indartzea.

Horrela, ekimenaren programan proposatzen diren jarduerak helburu horiei erantzuten diete, eta, horiek lortzeko, hainbat modalitate eta formatu txandakatzen dira, hala nola osoko bilkurak, parte hartzeko tailerrak, proiektuen eta ekimenen aurkezpena, bilera paraleloak eta gizarte eta kultur jarduerak.


Jarduera horren garapena baloratzeko eta, aldi berean, planteatutako helburuen betetze maila identifikatzeko, urtero online galdetegi autoadministratu bat aplikatzen zaie bertaraten diren guztiei.

Euskampus Bordeaux Eguna 2022 ekimena egin ondoren –2022ko azaroaren 21ean eta 22an izan zen, Bordelen–, 158 laguni galdetegi bat bidali zitzaion (bertaratuak guztira, antolakuntzako taldea kontuan hartu gabe) eta baliozko 56 erantzun jaso dira, hau da, erantzun tasa % 35ekoa izan da. Jarraian, kontsulta honen emaitza nagusiak nabarmentzen eta aztertzen dira. Lehenik eta behin, asistentzia profilari buruzko informazio orokorrak deskribatzen dira, eta, jarraian, planteatutako 4 helburuetako bakoitzari atal bat eskaintzen zaio.

## Bertaratze profila


Atal honetan, ekimeneko bertaratze profila aztertzen da. Lehenengo zatian, bertaratutakoen guztizko kopurua (158) aztertzen da, galdetegiari emandako erantzun kopurua kontuan hartu beharrean (56). Profilarekin lotuta aztertutako informazioak izena emateko formularioan jaso direlako egin ahal izan da hori. Horrela, atal honetan, kasuen % 100i erantzuten dioten informazioak islatzen dira, eta ez horiek ordezkaten dituen populazioari (% 35) buruzkoak –hots, formularioa erantzun dutenak, hurrengo ataletako azterketaren oinarria–. Grafiko bakoitzean, kalkuluak egiteko erabili den guztizko kopurua (N) adierazten da.

Bertaratze profilaren lehen ezaugarria erakunde afiliazioari dagokio. Bertaratuen % 47 UPV/EHUtik datoz, eta % 37 UBtik. Bertaratuen % 3 DIPCKo gisa zenbatu dira, baina kontuan izan behar da erakunde horretako ikertzaile batzuek atxikipen bikoitza dutela eta UPV/EHUkoak ere badirela. Tecnaliako kideak parte-hartzaileen % 5 izan dira. Parte-hartzaileen % 2k beste ikerketa erakunde batzuk ordezkatu dituzte, eta parte-hartzaileen % 6 administrazio publikoko erakundeetatik etorri dira, batez ere eskualdeko eta tokiko erakundeetatik.



1. grafikoa. Afiliazioa

Genero profilari dagokionez, partaidetza orekatua izan da: gizonak % 52 dira eta emakumeak % 48.



2. grafikoa. Generoa


Jarraian, Euskampus Bordeaux Campuseko komunitatean betetzen duten paperaren arabera aztertuko da bertaratuen profila.

Aurten, ekimen horretan ikasleen parte-hartzea handitzea hartu da lehentasunezko helburutzat. Kolektibo horri lehentasun handia ematen zaio Euskampus Bordeaux Campusean, eta, horretarako, ikasleak aliantza horretako erakundeek partekatutako proiektuetan integratzeko tresna batzuk bideratzen dira. Horien presentziaren bidez, euroeskualdeko problematikak eta lehentasunak ezagutzen dituzten gazte talentudunen belaunaldi berri bat eratzea bermatzen du, eta, gainera, haien ikerketa proiektuak (gradu amaierako lanak edo master amaierako lanak, egonaldiak edo doktorego tesiak) aliantzako erakundeen arteko lankidetzak finkatu eta garatzeko funtsezko makineria dira.

Kolektibo horri nabarmen zuzendutako deialdi bati erantzunez, zeinetan komunitateko estamentu guztiek esku hartu duten, EBE 2022ko parte-hartzaileen % 38 ikasleak izan dira; horietatik % 11 graduak edo masterrak egiten ari dira, eta % 27 doktorego ikasketak. Kolektibo hori ikertaldeen arteko lankidetzan garatutako proiektuetan zuzenki inplikaturatuta dago –tutorekidetzen, zuzendarikidetzen, unibertsitateen arteko titulazioen edo diploma bikoitzeko titulazioen esparruan garatutakoetan–, eta horietako asko Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Laborategietako (LTC) lankidetzaren esparruetan ari dira egiten beren lanak –Euskampus erakundearen arteko lankidetzaren egituraketan gero eta finkatuago dagoen tresna bat da hori–.

Halaber, parte-hartzaileen % 3 doktorego ondoko ikertzaileak izan dira, eta irakasle ikertzaileak (IRI) partaideen % 26. Administrazio eta zerbitzuetako langileek (AZP) –bertaratuen % 13– osatzen dute partaidetza profila, zeinak unibertsitateko komunitateko estamentu guztiak barne hartu dituen.

Erakundeek proiektu hau babesten dute, honako hauek aktiboki parte hartzeak erakusten duen bezala: bi unibertsitateetako gobernu taldeetako kideen % 15ek, Euskampus Fundazioko patroien ordezkarien % 3k (4 erakundeetako ordezkariak) eta lurralde administrazio publikoetako agenteen % 4k. Azken horien artean, bi eskualdeetako (Akitania Berria eta Euskadi) ordezkariak, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdekoak eta beste toki erakunde batzuetakoak daude.



3. grafikoa. Jarduera profila


Kontuan hartuta Euskampus Bordeaux Campusa 2030erako horizontean proiektatzeko hausnarke-ta estrategiko bat planteatzea izan dela ekimen horretako jarduera garrantzitsuenetako bat (jardue-ra hori aurrerago zehaztuko da), Euskampus Bordeaux komunitatea osatzen duten profilen mosaiko hori ordezkatuta egotea oso garrantzitsua izan da.

Atal honetatik aurrera, parte-hartzaile guztiei bidalitako galdetegian jasotako 56 erantzunak kontuan hartuta egin da azterketa.

Sarreran adierazi den bezala, EBE 22an programatu diren saioak eta jarduerak ekimenaren helburuen eta aliantza hau garatzeko etapa bakoitzean identifikatzen diren lehentasunen arabera diseinatu dira.

Ilido horretan, saio bakoitzera zer publiko bertaratu den aztertu behar da, txosten honetan jarraian jaso diren baloraziozko erantzunen baliozkotasuna argitzeko.

Programaren muina diren jardueretako parte-hartzea handia izan denez, esan daiteke pertsonak EBE 22 proposamenean murgiltze maila handia izan dutela, eta, horrela, galdera sortan sartutako gainerako balorazio galderei funts handiz erantzun ahal izan dietela.



4. grafikoa. Saiotako parte-hartzea

Programaren egiturazko jardueretan bertaratzeari % 75etik gorakoa izan dela ikusi da. Zehazki, partaidetzarik handiena (% 91) irekiera atalean erregistratu zen. Atal horretan, inaugurazio ekitaldia, Enlight Europako unibertsitate proiektuaren aurkezpena, Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Laborategien (LTC) eta haien LTC Sarearen aurkezpena eta 2022an onartutako LTC berriaren iragarpena barne hartu ziren. Lehenengo egunean, halaber, Euskampus Bordeaux Campusaren 2030erako proiektioari buruzko hausnarketa estrategikoko tailerra egin zen eta % 80ko partaidetza izan zuen. Programako jardueren nagusietako bat zela eta lortutako emaitzak baliozkoak direla adierazten du horrek. Ekimenera bertaratutakoen % 82k afarian parte hartu zuten, zeinetan konfiantzazko loturak sortzen diren eta proiektuen eta ekimenen ezagutzan sakontzen den.

Bisita gidatua hautazko kultur jardueren bat da eta beste jardueren batzuekin batera egin da, hala nola lan bilerekin (Meeting Point) eta "Nire zeharkaldia 173 itsas miliatan" jardueren hizlarien entsegu orokorrarekin batera. Hainbat jardueren aldi berean egiteak azaltzen du bertaratutakoen % 36k bakarrik gozatu izana jardueren horretaz. Dena den, bertaratutakoek oso balorazio ona eman diote.

Meeting Point deitutako jardueraren funtsa, aurren, bertaratutakoei beren proiektuei buruzko lan edo elkartruke bilerak, programatuak edo bat-batekoak, egin ahal izateko ordutegi tarte espezifiko bat eta lan aretoak jartzea izan da. Jarduera proposamen horretan % 41eko parte-hartzea izateak adierazten du hurrengo edizioetan oraindik gehiago susta daitekeela, Euskampus Bordeaux komunitatearen urteroko ekimen horretan topaketa puntualak izateko aukera aprobetxa dadin. Bigarren egunean, jarduera guztiak osoko bilkuraren aretoan egin ziren, eta egiaztatu dugunez, bertaratutakoen kopurua egonkorra izan zen (% 75) proposatutako 3 jardueretan: a) lehen eguneko tailerraren emaitzak ematea, bi unibertsitateetako gobernu taldeen eskutik (jorratutako ardatz bakoitzeko errektoreordeek); b) Euskampus Bordeaux "mugaz gaindiko zeharkaldia" osatzen duten ikasleek eta irakasle ikertzaileek esperientziak eta proiektuak aurkeztea, pitch formatuan, 173 segundotan (Bilboko portua eta Bordeleko portua lotzen dituzten 173 itsas miliei erreferentzia eginez); eta c) amaierako ekitaldi instituzionala, zeinetan aliantza osatzen duten 4 erakundeetako (UPV/EHU, UB, TECNALIA eta DIPIC) maila goreneko ordezkariak topaketaren balantzea egin eta etorkizuneko lan ildoak eta desirak adierazi zituzten.






## Ikusgarritasuna

EBE 22k Euskampus Bordeaux Campusaren testuinguruan garatzen diren proiektu eta jarduerak ezagutarazteko duen ahalmenarekin dago lotuta, nagusiki ikusgarritasunaren helburua.


Helburu hori zenbateraino bete den aztertzeko, bertaratutakoei honako galdera hauek egin zaizkie: Euskampus Bordeaux Campusaren proiektu orokorrari buruz duten ezagutza maila (aurrekoa eta EBE n parte hartuta eskuratua), zein komunikazio kanalen bidez izan duten ekimenaren antolaketa-  
ren berri, eta bai topaketa, bai programa egokiak diren aliantza horren esparruan egiten diren lanki-  
detzak ezagutarazteko eta parte-hartzaileei beren proiektu eta ekimen indibidualak ezagutarazteko  
aukera emateko.

Unibertsitate komunitatean, proiektuarekin lotutako erakundeetan, zientzia eta teknologia siste-  
mako beste erakunde batzuetan, eta administrazio publiko eta pribatu laguntzaileetan Euskampus  
Bordeaux Campusaren proiektuari buruzko ezagutza zabaltzeko eta indartzeko asmoari dagokio-  
nez, inkestatutako pertsonen % 9k adierazi dute ez zutela proiektuaren berri ekimena joan aurretik  
eta % 16k adierazi dute ezagutza txikia zutela. Aldiz, % 23k adierazi dute ezagutza ertaina zutela, %  
29k ezagutza handia eta % 23k ezagutza maila oso handia EBE 2022n parte hartu aurretik.




5. grafikoa. EBE 22ren aurreko ezagutza

Ekimenaren aurreko ezagutzaren eta ondorengo ezagutzaren arteko alderaketak erakusten du EBEra joateak nabarmen laguntzen duela proiektua dagokion komunitatean ezagutarazten eta zabaltzen. Inkestatutako pertsonen % 2k soilik adierazi dute ekimenera joan ondoren proiektuari buruzko ezagutza txikia dutela, % 11k esan dute ezagutza ertaina dutela, % 45ek ezagutza handia eta gainerako % 43ak ezagutza oso handia. Inkestatutako inork ez du adierazi EBEra joan ondoren proiektua ezagutzen ez duenik.




6. grafikoa. EBE 22ren ondorengo ezagutza

Ekimenaren berri izan duten komunikazio bideei dagokienez, inkestatutako pertsonen % 75ek adierazi du UPV/EHUren eta/edo Bordeleko Unibertsitatearen gonbidapen instituzionalaren bidez jakin duela. % 32k adierazi dute Euskampus Fundazioaren gonbidapenaren bidez izan dutela ekimenaren antolaketaren berri. Kanal horiez gain, kasuen % 55ean web kanalen bidez ere (social media, newsletterak, unibertsitateen webguneak) ezagutarazi da ekimena egitekoa zela. Bestalde, % 18k adierazi dute aurreikusita ez zeuden beste bide batzuen bidez (formalak eta/edo informalak) izan dutela ekimenaren berri.




7. grafikoa. Komunikazio kanalak

Ekimena Euskampus Bordeaux komunitatearen lankidetzak eta proiektu orokorrak ezagutarazteko bitarteko egokia izateari dagokionez, inkestatutako pertsonen % 32k uste dute ekimen hori oso egokia dela helburu horietarako, % 50ek uste dute nahiko egokia dela eta gainerako % 18ak egokitzat jotzen du. Inork ez du uste ekimen hori ez dela egokia aliantza estrategiko horren esparruan egiten diren lankidetzak ezagutarazteko helburua betetzeko.



8. grafikoa. Ekimena komunitatearen proiektuak ezagutzeko egokia den


Topaketa bertaratuek beren proiektuei edo lanei buruzko informazioa partekatu ahal izateko bitarteko egokia den ere galdetu da. % 23ren ustez EBE oso egokia da helburu horretarako, % 52k nahikoa egokitzat jotzen dute eta % 18k egokitzat. % 7k soilik uste dute EBE ez dela oso egokia bere proiektuak ezagutarazteko.



9. grafikoa. Ekimena proiektu propioak partekatzeko egokia den

Bertaratu guztien balioespenak kontuan hartuta, esan daiteke EBE egitea funtsezkoa dela, bai komunitatearen programak eta lankidetzak ezagutzeko, bai hura osatzen duten pertsonen proiektuak eta lanak gizarteratzeko.

EBE 22ko programaren egokitasuna ebaluatu ahal izateko, interes handiena piztu dioten jarduerak aipatzeko eskatu zitzaion jendeari (askotariko erantzunak onartuz).



10. grafikoa. Saioen interesa

Interes handiena piztu duen jarduera proiektuak 173 segundoan aurkezteko “Nire zeharkaldia” izeneko jarduera izan da, pitch formatukoa eta bertaratu guztiei zuzendua; bigarrenik, berriz, Campus 2030 tailerra aipatu da. Emaitza horien arabera, balorazio positiboena jaso duten jarduerak komunitatearen beraren parte hartze aktiboena izan zutenak dira. Lehenengoan, komunitateak bere proiektuak, esperientziak eta ekimenak aurkeztu zituen; bigarrenean, berriz, berea sentitzen duen proiektu horren etorkizuneko diseinua bideratzeko bere esperientzia eta hausnarketak partekatu zituen.


Parte-hartzaileek afariari eusteko interes handia dute, sozializatzen eta elkarrenganako eta proiektuekiko ezagutzan sakontzen jarraitu ahal izateko gune informal bat delako. Ekitaldi instituzionalek, hala nola irekierak (% 25) eta itxierak (% 9), formatu klasikoak izaten jarraitu dute, eta, ziur aski, Euskampus Bordeaux komunitateak parte hartzeko premiari dagokionez daukan heldutasunak ekitaldi horietarako formatu berriak planteatzea eskatuko du.

Ildo horretan, Campus 2030 tailerraren lehenengo egunean egindako hausnarketa estrategikoari dagokionez, esan behar da jarduera hori Euskampus Bordeaux komunitateko kideen ekarpenak jasotzeko eta, horrela, 2023. urtearen hasieran idatzi eta onartuko den esparru akordio berri baten idazketan sartu ahal izateko egokia zen ere galdetu zela.

Aurreko atalean adierazi den bezala, EBE 2022ra bertaratu zirenen % 80k parte hartu zuten jarduera horretan. Tailerrean, diziplina anitzeko taldeetan lan egin zen, askotariko profilak barne hartuta, Euskampus Bordeaux Campusaren egiturazko 4 ardatzei buruz hausnartzeko eta proposamenak egiteko, hau da, honako hauei buruz: a) ikerketa eta berrikuntza, b) hezkuntza eta ikasleak, c) lurraldea, lankidetzak eta berrikuntza, eta d) eraldaketarako nazioartekotzea. Nabarmendu behar da ardatz bakoitzari buruzko ekarpen ugari jaso zirela.

Bi unibertsitateetako zegozkien arloetako errektoreorde bikoteek ekarpen horiek aztertu eta sintetizatu zituzten eta hurrengo egunean aurkeztu zituzten, emaitzen berri emateko saioan. Ekarpen horiek guztiak oinarritzko dokumentu batean bilduko dira eta dokumentu hori 2023ko esparru akordio berriari buruzko ondorengo hausnarketa estrategikoko fasean (kontsulta eta idazketa prozesua) erabiliko da. Hausnarketa horretan, bi unibertsitateetako gobernu taldeek eta patronatuz osatutako erakundeetako arduradunek parte hartuko dute.

Tailer hori komunitatearen ekarpenak jasotzeko egokia den edo ez galdetuta, % 29k oso egokitzat jo dute, % 52k nahiko egokitzat, % 13k egokitzat eta % 6ri ez zaie egokia iruditu.



11. grafikoa. Campus 2030 tailerraren egokitasuna

Emaitza horietatik abiatuta, ondorioztatu daiteke bertaratutakoentzat urteroko topaketa hori egokia dela komunitatearen jarduerak ezagutu eta zabaltzeko. Gainera, nabarmendu dutenez, gune horrek beren interesak eta itxaropenak adierazteko aukera eman die, baita komunitatearen planteamendu estrategikoan eta bilakaeran aintzat hartuak izateko aukera ere. Gai hori txosten honetako Komunitatea atalean aztertuko da sakonago.


## Anplifikazioa

EBEk harreman berriak eratzeko eta baterako ekintzak sortzeko gune gisa duen balioarekin lotuta dago anplifikazioaren helburua.

Helburu horren betetze maila aztertzeko, ekimen hori harreman berriak sortzeko eta inizatiba berriak bultzatzeko egokia den galdetu zaie bertaratutakoei.


Horri dagokionez, komunitateak nabarmendu du topaketa horrek harreman potentzialak eta lankidetzak sortzeko ahalmen handia duela, eta, era berean, aukera berriak aztertzeko eta beste proiektu batzuetan inspiratzekoa.

Horrela, inkestari erantzun dioten pertsonen % 22k oso egokitzat jotzen dute ekimen hori kontaktu eta harreman berriak sortzeko, eta, horien bidez, ekintza bateratuak sortzeko (lankidetzak proiektuak, ikerketa proiektu berriak, negozio aukera berriak, aukera eremuak identifikatzea, besteak beste). % 45ek uste du nahiko egokia dela, eta % 31k egokia dela. % 2k soilik uste du ez dela egokia.



12. grafikoa. kontaktu berriak sortzeko egokitasuna

Ildo berean, gune horrek duen inspirazio ahalmenari dagokionez, ekimen eta/edo proiektu berriak aintzat hartzera bultzatzeari dagokionez, inkestatuen % 21ek oso egokitzat jotzen dute, % 52 nahiko egokitzat eta % 25 egokitzat. % 1ek soilik uste dute ez dela batere egokia helburu horietarako.



13. grafikoa. Ekimen berriak kontuan hartzeko egokitasuna




## Sozializazioa eta ikaskuntza

Topaketa hori mugaz gaindiko campusaren testuinguruan harreman horizontalak ezartzeko eta gaitasunak eskuratzeko gune gisa duen ahalmenarekin lotuta dago sozializazio eta ikaskuntzaren helburua.

Helburu horren betetze maila aztertzeko, ekimenaren eleaniztasunari eta kulturartekotasunari buruz eta harremanetarako, sentsibilizaziorako eta ezagutzarako gaitasunak bereganatzeari buruz galde-tu zaie bertaratutakoei.


Eleaniztasuna eta kulturartekotasuna funtsezko elementutzat jotzen dira komunitate horren ezau-garria den aniztasunak ematen duen aberastasuna balioesteko eta sustatzeko. Horri dagokionez, inkestatutako pertsonen % 57k adierazi dute erabat pozik daudela ekimenaren eleaniztasunarekin. % 29 oso pozik daude, % 7 pozik, % 5 ez daude pozik eta % 2 ez daude batere pozik.



14. grafikoa. Ekimenaren eleaniztasuna

Ekimenean, euroeskualdeko hiru hizkuntza ofizialak (gaztelania, euskara, frantsesa) erabiltzea sus-tatzen da, hain zuzen ere, komunitatearen kulturartekotasuna eta aberastasuna transmititzeko modu gisa. Ingelesa lingua franca gisa erabiltzen da. Horri dagokionez, pertsona gehienek ustez, beren hizkuntza ondo ordezkaturik egon da ekimenean, % 36k adierazi dute oso ondo ordezkaturik egon dela eta % 39k nahiko ordezkaturik egon dela.


% 14k uste dute beren lehen hizkuntza erdizka egon dela ordezkatuta, eta % 4k ordezkaritza txikia izan duela. % 7k uste du bere hizkuntza ez dela batere ordezkatuta egon.



15. grafikoa. Lehen hizkuntzaren ordezkaritza


Horrez gain, komunitateak nabarmendu du ekimena eleaniztuna izateak aniztasunarekiko errespetua eta jakin-mina garatzen laguntzen duela. Inkestatuen % 46,4ren ustez, ekimena eleanitza izatea oso egokia da errespetuan eta jakin minean oinarritutako kulturartekotasuna sustatzeko, eta, % 34,7ren ustez, nahiko egokia da. Pertsona horietatik % 11ren ustez, EBE erdizka da egokia helburu horietarako, eta, % 7ren ustez, ez da egokia.






16. grafikoa. Kulturartekotasuna

Eleaniztasunarekin eta kulturartekotasunarekin lotutako egokitasunaz gain, inkestatuek nabarmendu dute ekimena oso egokia dela Euskampus Bordeaux komunitateko askotariko profiletako kideen artean harreman horizontalak ezartzeko. % 25ek oso egokitzat jotzen dute, % 54k nahiko egokitzat eta % 20k egokitzat. % 1ek soilik uste dute EBE ez dela oso egokia harreman horizontalak ezartzeko.




17. grafikoa. Sozializazio horizontala

Ekimen horretan sortzen diren harremanetan eleaniztasuna eta kulturartekotasuna bultzatuz, bertaraten direnek hainbat errealitate ezagutu ahal izatea eta euroeskualdea osatzen duten eragileak eta testuingurua hobeto ulertzea espero da. Ildo horretan, inkestatuen % 35ek uste du EBE oso egokia dela helburu horietarako, % 44k uste du dezente egokia dela eta % 19k uste du erdizka dela egokia. % 2k adierazi du EBEk ez duela helburu horietan laguntzen.



18. grafikoa. Euroeskualdeko errealitatearen ezagutza




## Komunitatea

EBEk Euskampus Bordeaux Campusaren testuinguruan kide izatearen sentipena garatzeko gune gisa duen ahalmenarekin lotuta dago komunitatearen helburua.

Helburu horren betetze maila aztertzeko, EBEn parte hartzeak komunitateko kide izatearen sentipena eragin dien eta ekimenaren antolaketarekiko zer gogobetetze duten galdetu zaie bertaratutakoei.

Inkestatuen % 38ren ustez, EBE oso ekimen egokia da Euskampus Bordeaux komunitateko kide izatearen sentipena garatzeko, eta % 44ren ustez, ildo berean, nahiko egokia da helburu horretarako. % 14ren iritziz, EBE erdizka da egokia kide izatearen sentipena sustatzeko, eta, % 4ren iritziz, ez da egokia helburu hori lortzeko.


Inkestatuen hitzetan, EBE "dauden proiektuak balioztatzeko, aliantzaren esperientziei buruzko elkartrukeak zuzenean eta protagonistekin izateko, eta komunitatearen etorkizuneko planetarako prestatzeko aukera bikaina da". Azpimarratuenez, gune horrek "askotariko interesak izan arren", "aniztasunetik eta mestizaiatik abiatuz irekitasun zientifikoa eta kulturala" ahalbidetzen dituen "zientziaren eta ikerketaren benetako ikuspegi multikultural batean" oinarrituz, "elkartrukeko helburu komuna" duen jendea topatzeko aukera ematen du.



19. grafikoa. Kide izatearen sentipena

Bertaratuek EBEren etorkizuneko edizioetan parte hartzeari buruz adierazi duten jarrerak ere adierazten du komunitatean kideza sentimendua sortu dela: inkestatuen % 98k adierazi dute hurrengo topaketan ere parte hartuko luketela. Era berean, inkestatuen % 68k adierazi dute komunitatearekin harremanetan jarraitu nahiko luketela, testuinguru horretan gauzatzen diren esperientziei eta proiektuei buruzko informazioa jasoz eta trukaturaz.

Parte-hartzaileek ekimenaren antolaketarekiko duten gogobetetzeari dagokionez, inkestatuen % 43k adierazi dute erabat pozik daudela. % 44,6 oso pozik daude, % 10,7 pozik eta % 1,8 ez daude oso pozik. Azpimarratu diren hobetu beharreko alderdi nagusiak honako hauek dira: "Komunitateko kideen proiektuak eta jarduerak aurkezteari pisu handiagoa ematea" eta "mugaz gaindiko proiektuen eta komunitatearen aliantzen izaeran, funtzionamenduan eta eskaintzen dituzten abantailetan" sakontzea.



20. grafikoa. Ekimenaren antolaketa



